Jainkoak etxera igortzen gaitu.

Berri zonbait eman ondoan, apezak benedikatzen gaitu Jainkoaren indarra emateko. Bakoitza igorria da bere fedearen, aizinaren, jokoaren, lanaren partekatzera aurkitzen dituen guziekin.

Apezak : Jauna zuekin **Guk :** Eta zure izpirituarekin

Apezak benedikatzen gaitu : kurutzen seinalea egiten dugu.

Apezak : Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak Aitak eta Semeak eta Izpiritu Sainduak. **Guk :** Amen

Apezak : Zoazte Jaunaren bakean **Guk :** Eskerrak Jainkoari

Meza bururatua da. Kantu bat emanez bereizten gara.

Hitzak ulertzeko :

Meza

Hitz hori heldu zaigu “missa” hitz latinetik, bera etortzen delarik beste hitz batetik, “mittere”, erran nahi duena “bidali, igorri”.

Erien komunionea

Mezan parte hartu dutenek etxean eri gelditzen direnei eukaristia ematen ahal diete. Apezak ematen die ostia kontsekratua ontzi tipi batean. Ontzi tipi hori deitzen da “kustodia”. Ordezkari horiek denen otoitza ere ekartzen diete.

Jestuak

Benedikatu :

Apezak egiten du gurutze seinale haundi bat biltzarraren gainean. Benedizione horren bitartez, giristinoak Jainkoaren indarraz eta maitasunaz estaltzen ditu. Gero Jesu Kristoren pizteaz lekuko izan daitezen.

Bereiztea

Ez gara beti gure artean, giristinoen artean bizitzen ahal.
Besten artean bizitzeko behar dugu elgarren artetik bereizi.
Mezan bildu den populua Jainko populuaren hazi bat da, eta hazi hori haundituko da.

Igortzea

Mezako gauzak

Patena
Ostia haundia edukitzen duen azieta tipiak.

Kalitza

Kopa honek arnoa edukitzen du.

Edalontzi tipiak, buretak :
Ontzi tipi horiekin arnoa eta ura apezari aurkezten dira.

Alba (eliza-mantarra)
Soineko luze eta xuri bat. Latinez albak erran nahi du "xuri".
Soinean, apezak ematen ahal du kapa haundi bat, "kasula": latinez erran nahi du kaputxa duen soinekoa.



Estola
"Stola" hitz latinetik etortzen da, lepoko luze bat da.

Ziborioa
Ontzi sakratua, ostia kontsekratuak edukitzeko.

Tabernakula
Latinetik "tabernaculum", etxola, armairu tipia ziborioaren ezartzeko.



Aldarea
Mahaina, mahain horretan ogia eta arnoa ezarriak dira. Apezak mahain horren aintzinean erraten du mezaren Otoitz Haundia.

Oharra
Gramatika sailean, ohartuko zarete testoa bi partetan moldatua izan dela :

Azalpenak euskara batuan apailatuak izan dira, liburu hau ikastolako haurrentzat egina baita,
haatik,
meza testoaren bihotza edo muina «Igandetan elizan» liburutik ateratua izan da, deus aldatu gabe, erran nahi baita Lapurtar-Nafartarrez.
Horrela haurrek mezan parte hartuko dute usaiako Iparraldeko Elizaren mintzairan.

Hautu hori eztabaidagarria da eta etorkizunean alda daiteke.

A Ithurbide
JC Iribarren
2009/03/18

HAURREN ESKER ONEZKO OTOITZAK BIGARRENA

Jauna zuekin... *Eta zure izpirituarekin*
Gora bihotzak *Jaunari dauzkagu*
Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari *Egoki da eta zuzen*

Bai, Aita guziz ona, pozik gaude zurekin : gure bihotzak esker onez beterik dauzkagu, eta Jesusekin gure zoriona kantatzen dautzugu :
Bai, maite gaitutzu : mundu haundi eta eder hau zuk egin duzu guretzat. Bai, maite



gaitutzu : Jesus zure semea eman daukuzu, gu zure ganat eremaiteko. Bai, maite gaitutzu : Jesusen baitan bat egiten gaitutzu, familia bereko seme-alabak bezala. Hoinbeste maite gaitutzulakotz, eskerrak emaiten dauzkitzugu, zeruan goresten zaituzten aingeru sainduekin kantari :



Benedikatua izan bedi Jesus, ttipien eta behartsuen adixkide izaiteko zuk igorria. Bera hortarako etorri zen : guri erakusteko nola zu maita, eta nola elgar maita. Bera etorri zen, gizonen bihotzetik kentzeko adixkide izaitea debekatzen duen gaizkia, eta zoriona kentzen daukun herra. Berak hitzeman dauku, Izpiritu Saindua beti gurekin izanen dela, zure biziaz bizi gaitezen.



Jainko gure Aita, igor-azu zure Izpiritua, **ogi** eta **arno** hauk Jesus gure Jaunaren **gorputz** eta **odol** egin ditezen. Berak, hil bezperan, zure maitasun neurrigabea erakutsi zaukun : bere dizipuluekin mahainean zagolarik, ogia hartu zuen eta otoitz bat egin, zu benedikatzeko, eta zuri eskerrak emaiteko ; zatitu zuen ogia eta heieri eman zioten, erranez : **Harzazue ta jan guziek huntarik : hau nere gorputza baita zuentzat emanen dena.**
Sagarako goramena :



Gero, kalitza arnoz betea harturik, otoitz egin zuen, zuri eskerrak emaiteko, eta kalitza eskaini zioten, erranez : **Harzazue ta edan guziek huntarik : hau nere odolaren kalitza baita, batasun berri ta betikoaren odola, zuentzat eta guzientzat bekatuak barkatzeko ixuriko dena.**



Eta gero erran zioten : **Egizue hau nere orroitgarri.**
Aita guziz ona, gogoan ditugu orai Jesus, munduaren Salbatzailearen heriotzea eta piztea. Bera eman zitzaikun, orai eskaintzen dautzugun opari izaiteko, eta gu zu ganat eremaiteko.



Entzun gaitzazu, Jainko Jauna eta emaguzu zure maitasun-Izpiritua mahain huntan parte dugun guzieri, gero ta elgartuago bizi gaitezen zure Elizan
gure aita sainduarekin, gure artzainarekin, beste artzainekin, eta zure herriaren zerbitzari guziekin.



Gogoan izan, Jauna, maite ditugunak, baita maiteago izan behar gintuzkenak ere. Gogoan izan gure hilak... eta bizi huntarik bakean joan diren guziak : har ditzazu maitasunez zure etxean.



Bil gaitzazu gu ere egun batez zure ondoan, Jesusen Ama eta gure Ama den Maria Birjinarekin, zure Erreinuan beti iraunen duen egun pozgarria ospa dezagun. Han, Jesu Kristo gure Jaunaren adixkide guziek beti goretsiko zaituzte :

Denek : Gorputz bat guziak, zu goratzeko Gorputz bat guziak, zu goratzeko.



Doxologia : Hunen bitartez, hunekin eta hunetan, Zuri, Aita, Jaungoiko guzialdenari, Izpiritu Sainduarekin batean, ospe ta aintza guzia gizaldi et gizaldi guzietan. **Amen.**





Mezako lau memento haundiak

Meza lau momentu haundik osatzen dute. Liburuxkan baditugu ezagutgarriak beren izenekin : Biltzea - Hitza - Eukariztia eta Igortzea.

BILTZEA

* Jaunak biltzen gaitu 4
* Jainkoaren barkamena galdegiten dugu 6
* Gloria : Jainkoaren goresmena egiten dugu 8

HITZA

* Jainkoaren Hitza entzuten dugu 10
* Gure fedea baieztatzen dugu 12
* Gizon guzientzat otoitz egiten dugu 14

EUKARIZTIA

* Ogia eta arnoa Jainkoari eskaintzen dizkiogu 16
* Jainkoa eskertzen dugu 18
* Jesu Kristorekin gure bizia Jainkoari eskaintzen diogu 20-22
* Gure Aita erraiten dugu 24
* Kristoren bakea elgarri emaiten dugu 26
* Jesu Kristoren biziari komuniatzen dugu 28

IGORTZEA

* Jainkoak etxerat igortzen gaitu 30
* Mezako gauzak 32

Arbonako eliza, XIII. mendekoa